

BURUSI ERDIA

Ereñoko Gabika auzoko Maripa Ispizuak kontatuta

Gizon bat, zaharraren lanerako ezindua, semearen etxera joan zen bizi izatera. Seme hau ezkontuta zegoen, askazi handitxo ere bazuen. Behin, ez dakigu zergatik, ala zikoitza eta diruzaleegia zelako, ala bere emazte eta seme-alabentzako duin irabazten ez zuelako,

- Aita –esan zion guraso zaharrari-, nik ezin elikatu zaitzaket eta burusi hauxe lepoan duzula zoaz atetik ate eskean eta Jainkoa lagun dakizula.

Orduan semetxo zaharrenak aitari

- Aita –esan zion-, burusi osoa ematen diozu aititeri? Erdiaz ere nahikoa du. Gorde egizu beste erdi hori neuk zeu etxetik bidaltzen zaitudanerako.

Mutil zur zoli honen gurasoak, hau entzunda, bere aita zaharra berriro etxean hartu zuen.

Resurrección María de Azkue

Euskalerraren Jakintza

Literatura Popular del País Vasco

II. Liburua: Ipuinak eta Irakurgaiak

Euskaltzaindia&Espasa-Calpe

Bilbo, 1989